



LPA-IIEB

LANERAKO PROZEDURA ARAUTUA

IIEB

Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordea

2014ko ekainaren 9a

Leioa, 28 de mayo de 2014

Indizea

1	DEFINIZIOA ETA HELBURUAK	3
2	JARDUERA EREMUA	3
3	IIEBren EGINKIZUNAK	3
4	BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK	4
5	IIEBko KIDEAK	4
5.1	Osaera.....	4
5.2	Batzordeko kideak berritzeko prozedura.....	4
5.3	BATZORDEBURUAREN, BATZORDEKO KIDEEN ETA IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK	4
5.3.1	Batzordekideen eginkizunak dira:	4
5.3.2	IIEBko buruaren eginkizun berariazkoak dira:.....	4
5.3.3	IIEBko idazkariaren berariazko eginkizunak dira	5
6	INPERTZIALTASUNA, INDEPENDENTZIA ETA KONFIDENTZIALTASUNA	5
7	LANERAKO METODOLOGIA	5
7.1	OHIKO BILERAK.....	5
7.2	EZOHIKO BILERAK.....	6
7.3	BILEREN NONDIK NORAKOAK	6
8	IIEBren EGINKIZUNAK	7
8.1	EBALUAZIO ETA JARRAIPEN BATZORDEEI LAGUNTZEA	7
8.1.1	Batzorburuak:.....	7
8.1.2	IIEBko idazkaria.....	7
8.2	ANTZEMATEA IKERKETAKO ETA IRAKASKUNTZAKO ETIKAREN ARLOKO PREMIAK, ETA NEURRIAK PROPOSATZEA	7
8.3	LPA ONARTZEA EDO/ETA ALDATZEA	7
8.4	HARREMANAK AGINTARI ESKUDUNEKIN.....	8
8.5	KOORDINAZIO LANA BESTE BATZORDE BATZUEKIN.....	8
8.6	URTEKO MEMORIA EGITEA	8
9	LPA n ALDAKETAK EGITEA	8

1 DEFINIZIOA ETA HELBURUAK

IIEB ikerketaren etika bultzatzeko UPV/EHUko organoa da, eta ebaluazio eta jarraipen batzordeen jarduera errazten eta koordinatzen du, ondoko xedeak lortze aldera:

- **Bermatzea UPV/EHUen egiten diren ikerketa proiektuetan eta irakaskuntza jardueretan metodologiako, etikako eta lege arloko zehaztasunak bete egiten direla, kalterik egin gabe araudi orokorrak edo unibertsitatekoak hala eskatzen duenean unibertsitateko Lege Zerbitzuak nahitaez egin beharreko txostenari, batzorde bakoitzak bere eskumenen arloan arituko baita.**
- **Ebaluazioak egitea zehaztasun horiek bete egiten direla ziurtatzeko.**
- **Hori egiaztatzea kasuan kasuko agintariei.**

Helburu horiek betetze aldera, IIEBren arauak zehaztu ziren UPV/EHUren ikerkuntza eta irakaskuntzaren arloan etikako organoak arautzeko arautegian (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko ERABAKIA; 2014/02/17ko EHAA).

2 JARDUERA EREMUA

IIEBren jarduera eremuaren barruan daude UPV/EHUen egiten diren ikerketa proiektu eta irakaskuntza jarduerak ebaluatzen dituzten etika batzordeak. Proiektu eta jarduera ebaluatzeko eskaria egin behar da eta dena delako jarduerak ondoko ezaugarriak izan behar ditu:

- **Jarduera gizakiekin egitea.**
- **Gizakietatik lortutako lagin biologikoak erabiltzea.**
- **Izaera pertsonaleko datuak erabiltzea.**
- **Animaliak erabiltzea.**
- **Agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak erabiltzea.**

3 IIEBREN EGINKIZUNAK

Hauek dira IIEBren eginkizunak:

- a) **Hiru ebaluazio batzordeen lanean laguntzea, batzordeon independentziari kalterik egin gabe.**
- b) **Hiru ebaluazio eta jarraipen batzordeen lanerako prozedura arautuak onartzea, kalterik egin gabe UPV/EHUkoak ez diren beste instantzia batzuek izan ditzaketen eskumenei. Lanerako Prozedura Arautuan (LPA), gutxien dela, ondokoak jasoko dira: osaera (karguak, eginkizunak, kideak aukeratzeko era, kideen curriculum argitaratzeko era, kideak berritzeko era, batzordeburua, kideak kargutik kentzea eta interes gatazka), lanerako metodoa (bilerak, ikerketa eta irakaskuntza jarduera ebaluatzeko bidea), batzordeak hartutako erabakien kontrako alegazioak egiteko bidea eta erabakiak berraztertze prozedura, prestakuntza jarduerak, gomendioak nola eman, jarraipenerako ereduak eta urteko memoria.**
- c) **UPV/EHUren jarduera eremuan antzematea ikerketa proiektuetan eta irakaskuntza jardueretan metodologiako, etikako eta lege arloko zehaztasunak betetze aldera egon daitezkeen premiak, eta organo eskudunari premia horiek asetzeko beharrezko diren neurriak proposatzea.**
- d) **Erraztea harremanak organo eskudunekin.**
- e) **Batzordearen jarduera koordinatzea antzeko batzordeen jarduerarekin edo**

beste erakunde batzuetako ikerketako etika batzordeenarekin.

- f) Batzordearen jarduera eta jarduera horren ebaluazioa eta balantzea jasotzen dituen urteko memoria egitea.

4 BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Arlo honetan eskumena daukan errekoreordeari dagokio IIEBri bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabide eta baliabide teknikoak ematea bere errektoreordetzako baliabideak erabilita.

5 IIEBKo KIDEAK

5.1 OSAERA.

- a) IIEBko kide dira, gutxienez, arloan eskumena daukan errektoreordea eta/edo hark izendatutako pertsona, batzordeei laguntza teknikoa ematen dien pertsona, eta ebaluazio eta jarraipen batzordeetako buruak.
- b) Egoki iritziz gero, IIEBk aholku eska diezaieke UPV/EHUtik kanpoko adituei edo erakundeei.

5.2 BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEKO PROZEDURA

IIEBko kideak berritzeko era Gobernu Kontseiluak 2014ko urtarrilaren 30ean hartutako erabakian dago jasota (32. zenbakidun EHAA), eta erabaki horretan jasota dago beti izango direla batzordeko kide errektoreorde kargua daukaten pertsonak edo/eta errektoreordeak izendatutakoak, laguntza tekniko ematen duen pertsona eta ebaluazio batzordeetako (GIEB, AIEB eta ABIEB) buruak.

5.3 BATZORDEBURUAREN, BATZORDEKO KIDEEN ETA IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK

IIEBk batzordeburua, batzordekideak eta idazkaria izango ditu.

5.3.1 Batzordekideen eginkizunak dira:

- IIEBren bilera guztietara joatea eta parte hartze aktiboa izatea.
- IIEBk ematen dizkion zereginak betetzea, batzordeari dagozkion eginkizunekin bat etorrira.
- Batzordeburuari ezohiko bileretarako deiak egitea proposatzea, beharrezko denean.

5.3.2 IIEBko buruaren eginkizun berariazkoak dira:

- IIEBren urteko bileren egutegia proposatzea eta betetzea.
- IIEBren ohiko eta ezohiko bileren aztergaien zerrenda prestatzea eta bilerarako deia egitea, idazkari teknikoaren bidez.

- Bileretan moderatzaile lana egitea, zuhurtziaz arituta eta gaien inguruko eztabaida bultzatuta eta IIEBren eginkizunak betetzeko beharrezko diren erabakiak eta akordioak sustatuta.
- Agintarien aurrean edo beste erakunde batzuetako etika batzordeetan IIEBren ordezkari izatea edo batzordearen ordezkari izango dena aukeratzea.
- Bilerako akta sinatzea IIEBko batzarrak onartu ondoren.
- IIEBk hartutako erabakiak bete egiten direla zaintzea.

5.3.3 IIEBko idazkariaren berariazko eginkizunak dira

IIEBko idazkariaren berariazko eginkizunak dira LPA honetako 7. eta 8. puntuetan jasotakoak.

6 INPERTZIALTASUNA, INDEPENDENTZIA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Batzordeko kideak inpartzialtasun eta independentzia osoz arituko diren euren eginkizunetan, eta batzordeko kide izateagatik eskuratutako ezagutza guztia konfidentziala izango da.

7 LANERAKO METODOLOGIA

7.1 OHIKO BILERAK

Ohiko bilerak izango dira urtean egin beharreko hiru bilerak; batzordeak zehaztutako egutegiari jarraituz egingo dira.

IIEBko idazkariak egingo du bilerarako deia, bilera eguna baino gutxien dela 15 egun lehenago, kideek bilerako gaiak aztertzeke denbora izan dezaten.

Aztergaien zerrenda batzordeburuak zehaztuko du. Oro har, ohiko bileretan ondoko gaiak aztertuko dira:

- Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea.
- IIEBko kide bakoitzaren jardura eta premien txostena¹.
- Barne funtzionamenduko araudiei buruzko proposamenak (lanerako prozedura arautuei buruzkoak)².
- Eskakizun metodologiko, etiko edo juridikoak betetze aldera egon daitezkeen premiak eta batzordeetan ikerketa eta irakaskuntza jardueretarako praktika zuzenei buruzko prestakuntza³. Harremanak agintari eskudunekin⁴.Jarduerak antzeko batzordeekin edo beste erakunde

¹ Hiru ebaluazio batzordeen lanean laguntzea, batzordeon independentziari kalterik egin gabe.

² Hiru ebaluazio eta jarraipen batzordeen lanerako prozedura arautuak onartzea, kalterik egin gabe UPV/EHUkoak ez diren beste instantzia batzuek izan ditzaketan eskumenei.

³ UPV/EHUn jardura eremuan antzematea ikerketa proiektuetan eta irakaskuntza jardueretan metodologiako, etikako eta lege arloko zehaztasunak betetze aldera egon daitezkeen premiak, eta organo eskudunari premia horiek asetzeko beharrezko diren neurriak proposatzea.

⁴ Erraztea harremanak organo eskudunekin.

batzuetako ikerketako etika batzordeekin⁵.

- Urteko memoria: urteko lehenengo bileran aurkeztu behar da.
- Galde-eskeak

IIEBk eskaria egin dezake batzordeetako edozein kide bertaratzeko bilerara edo batzordearen zeregina betetzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein pertsona. Horrelakoetan, pertsona horrek ahotsa izango du, baina ez du botorik izango.

7.2 EZOHIKO BILERAK

Ezohiko bilerak dira premiaz deitzen direnak deialdia egiteko zehaztutako epeak bete gabe.

IIEBko edozein kideren eskariari jarraituz egin daiteke ezohiko bilerarako deia, gaia premiazkoa denean edo egin beharrekoen ondorioz premiaz egin behar denean bilera. Gehienez ere 5 egun balioduneko epean egingo da.

Deialdia IIEBko idazkariak egingo du, batzordeburuari jakinarazita, eta biderik arinena erabiliko du deia bidaltzeko. Bilera balioz eratzeko, gutxien dela bertan izan behar dira IIEBko batzordeburua, ebaluazio eta jarraipen batzordeetako hiru buruak eta bilerarako deia egin duen kidea (betiere, kide hori ez bada aipatutako lauetakoa bat). Ezohiko bileran deialdia eragin zuen gaia baino ezin izango da aztertu, eta gai hori hurrengo ohiko bilerako aztergaien zerrendan jasoko da, IIEBko kide guztiek izan dezaten horren berri.

7.3 BILEREN NONDIK NORAKOAK

Batzordeburuak osatuko du bileren aztergaien zerrenda eta deialdia IIEBko idazkariaren bidez egingo du.

Ohiko bilerarako deia posta elektronikoz egingo da eta aztergaien zerrenda izango du erantsita, bai eta bilerarako beharrezko diren agiri guztiak ere. Aztergaien zerrendan jasota ageriko da bilerako lekua, eguna eta ordua.

Ez da erabakirik hartuko eta ez da bozketarik egingo aztertutako gaia gai zerrendan ez badago, ez bada gehiengo soilaren aldeko botoekin gaia premiazkoa dela erabaki dela.

Bilera guztien akta egingo da, ohikoetako zein ezohikoetako. Akta bileran onartu ondoren, batzordeko buruak eta idazkariak sinatuko dute, eta idazkariaren ardurak izango da aktak, paperean eta formatu elektronikoa, artxibatzea eta zaintzea.

IIEBren bileretako aktetan, gutxien dela ondokoak jasoko dira:

- Bertaratuen eta bertaratu ez direnen zerrenda
- Aztergaien zerrenda
- Bilera non egin den eta iraupena
- Puntu nagusiak: batzordeburuen eta idazkariaren jardura txostena, premiak eta hartutako neurriak, egingo diren jarduerak, LPAn egindako aldaketak (horrelakorik egonez gero), harremanak agintari eskudunekin eta koordinazioa beste batzorde batzuekin.

⁵ Harremanak antzeko beste batzorde batzuekin edo beste erakunde batzuetako etika batzordeekin.

8 IIEBREN EGINKIZUNAK

8.1 EBALUAZIO ETA JARRAIPEN BATZORDEEI LAGUNTZEA

8.1.1 Batzorburuak:

Ebaluazio eta jarraipen batzordeetako buruek azken bileratik izandako gorabeheren berri emango dute Batez ere, batzordearen baitan izandako gorabeheren berri, horien ondorioz neurri bereziak hartu behar izan badira.

8.1.2 IIEBko idazkaria

IIEBko idazkariak ondoko gaiei buruzko informazioa emango du: bilerak, ebaluazioak eta irizpenak eta egindako eta aurreikusiko jarduerak.

8.2 ANTZEMATEA IKERKETAKO ETA IRAKASKUNTZAKO ETIKAREN ARLOKO PREMIAK, ETA NEURRIAK PROPOSATZEA

Aurreko puntukoa oinarri hartuta, etika, metodologia eta lege arloko betekizunak betetzeko dauden premiak edo/eta arazoak antzemango dira.

IIEBk premia eta arazo horiek aztertu, eta organo eskudunari premia eta arazoei aurre egiteko proposamena aurkeztuko dio.

IIEBren bileran, proposamena egitean, ondokoak jasoko dira, besteak beste:

- Premiaren edo/eta arazoaren nondik norakoak
- Horiek konpontzeko neurriak
- IIEBk horren ardura hartzeko izendatutako pertsonak
- Zein organori edo eremuri zuzentzen zaion
- Baliabide materialak edo/eta giza baliabideak, horrelakorik beharrez gero
- Ebazteko epea

Era berean, IIEBko kideei informazioa eman ondoren, bitarteko egokiak ezarriko dira batzordeko kideek ikerketa eta irakaskuntza jarduneko etikaren arloko prestakuntza egokia izan dezaten eta arlo horretan eguneratuta egon daitezten. Aurkeztutako proposamenek edo IIEBk edo beste batzordeek zuzenean egindakoek ondokoak bildu behar dituzte:

- Ikerketaren etika arloa
- Jarduera mota: ikastaroa, mintegia, jardunaldia, biltzarra...
- Nori zuzendua
- Proposatutako jardueraren erakunde edo pertsona arduraduna
- Gestioa eta finantziarioa
- Proposamena geratzeko epeak eta datak

8.3 LPA ONARTZEA EDO/ETA ALDATZEA

Ebaluazio eta jarraipen batzorderen batek lanerako prozedura arautua onartu behar badu edo prozedura horretan aldaketarik egin nahi badu, eskari arrazoitua aurkeztu

beharko dio IIEBko idazkariari.

8.4 HARREMANAK AGINTARI ESKUDUNEKIN

IIEBk bide egokiak ezarriko ditu ikertzaile eta irakasleek eta ebaluazio batzordeek izapideak zuzen egin ditzaten.

Egun, agintari eskudunak dira:

- Datuen babeserako euskal agentzia eta estatuko agentzia.
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea - OSALAN
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Ingurumen Saila
- Ingurugiro Ministerioa
- Hiru foru aldundietako abeltzaintza zerbitzuak

IIEBk bere gain hartzen ditu legediari jarraituz batzordeak akreditatzeko egin beharreko izapideak.

8.5 KOORDINAZIO LANA BESTE BATZORDE BATZUEKIN

IIEBk bere jarduerak antzeko batzordeekin edo beste erakunde batzuetako etika batzordeekin koordinatu behar ditu, batez ere ondokoekin:

- Unibertsitateetako eta ikerketako erakunde publikoetako etika batzordeen sarearekin, eta sare horretako batzordeekin
- Euskadiko Ikerketa Klinikoko Etika Batzordearekin (CEIC-E)
- Biosegurtasuneko Batzorde Nazionalarekin

8.6 URTEKO MEMORIA EGITEA

IIEBk urtero memoria egin behar du bertan jasota urtean egindako jarduera guztiak eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak zehaztutako adierazleei jarraituz. Memoria hori IIEBk hurrengo urtean egiten duen lehenengo bileran onartu behar da. Memorian, gutxien dela, ondokoak jasoko dira: ebaluatu den proiektu kopurua eta horien irizpena, prestakuntza jarduerak, hitzarmenak, MTak eta IIEBren koadernoak. IIEBko idazkariak zehaztu beharrekoak: ohiko eta ezohiko bilera kopurua, ebaluazio eta jarraipen batzordeetakoak, IIEBko kideak eta IIEBko idazkaria zenbat jardueretara joan diren, ikerketaren arloan zenbat aholku eskari egin diren (g.g.b.) eta hartutako eta emandako prestakuntza.

9 LPAN ALDAKETAK EGITEA

Lanerako Prozedura Arautua (LPA) aldatu egin ahal izango da, ataletakoren bat batzordearen eginkizunetarako oztopo dela iritziz gero, eta, betiere, aldatu nahi dena LPAko zehaztutako araudian jasota ez dagoen gaien bati buruzkoa ez bada.

LPA batzordeburuaren eskariz egingo da edo IIEBren ezohiko bileran aztertu eta bi herenen gehiagoren bidez onartuta.